BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3077

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 10ekoa, Garraioen Plangintzaren zuzendariarena, errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntza-programa bat ezartzen duen 2012ko irailaren 19ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duena.

Diru-laguntzak emateko jardunean errespetatu behar den publizitate-printzipioa betetzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko irailaren 19ko Aginduak 10.3 artikuluan xedatzen du diru-laguntza guztiak emandakoan onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dela.

Hortaz, aurreko lerroaldean zehaztutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntza-programa bat ezartzen duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko irailaren 19ko Aginduan aurreikusitako laguntzak zeini eman zaizkien argitaratzea, Garraioen Plangintzaren zuzendariak bere eskumenak erabiliz eman dituen ebazpenen arabera. Onuradunen zerrenda ebazpen honekin batera doa, eranskin gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 10a.

Garraioen Plangintzaren zuzendaritza,
MANUEL LEZA OLAIZOLA.

ERANSKINA

ERREPIDEKO GARRAIO PUBLIKOAREN ARLOKO ELKARTE PROFESIONAL ETA ENPRESARIALENTZAKO LAGUNTZA-PROGRAMA BAT EZARTZEN DUEN ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIOETAKO SAILBURUAREN 2012KO IRAILAREN 19KO AGINDUAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZEN ONURADUNAK

Eskatzailea	Diru-laguntza (Eurotan)
Ateia Euskadi-OLT	8.226,95
Hiru – Garraiolarien Sindikal Konfederazioa	18.723,40
Federación de Cooperativas de Transportistas de Euskadi	7.092,20
Egas	7.092,20
Asociación Vasca de Consejeros de Seguridad	4.255,32
Upta-Euskadi	4.255,32
asotrava	2.553,19
Federación Vasca del Taxi	5.106,08
Fevatrans	22.695,34